


# Berrikuntza Sailaren ekintzan

Gasteiz 2024ko martxoaren 22a



# 1 BERRIKUNTZA SAILAREN JARDUNEAN

2021-2024 eta Berrikuntza:  
Hainbat mugarri dituen ibilbide jarraitua

Enpleguaren Euskal Estrategiatik Enplegurako Berrikuntza Sarera: lau urteko jarduera, berrikuntza erreferente eta aldarte gisa hartuta

## 2 BIDE BERRITZAILEA 5 MUGARRITAN

Mugarri horiek ez dute beti lotura esplizitua izan, baina baldintzak sortu dituzte gaur Enplegu Berrikuntzaren Sarearen lankidetzaproiektua aurkezteko

**1º ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030 (EEE 2030)**

**2º ERAKUNDE BERRITZAILEEN AZTERKETA, 2022an garatua**

**3º MRRak hainbat aldetatik OPTIMIZATZEA**

- **COE programa:**

- Enplegu-ekosistema modernizatzeari eta berritzeari buruzko azterlan eta input sorta zabala
- Nodo Zentralaren/Berrikuntza Sarearen enbrioaren ernamuin egitura bat

- **Lanbide Hobetzen** proiektu eragilea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baldintza objektiboak berrikuntzatik eraldatzeko.

**4º ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEA**, berrikuntzarako egokia den lan-esparrua eskaintzen duen erreferentziazko mugarri gisa

**5º TESTUINGURU EGOKIAREN SORRERA** hainbat deialdi eta ekimen berritzailearen eskutik

## 1º ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030... LEHEN URRATS ERABAKIGARRI GISA

Berrikuntza, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren **bost printzipioetako bat da**, eraldatzen ari den ingurune bati erantzuteko premiaren aurrean.

- A. AUKERA-BERDINTASUNA** eta arreta, eta zerbitzu espezifikoak eta espezializatuak enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat, konpromiso berezia hartuta enplegua lortzeko eta emakumeen eta gizonen artean lanbidea eta ordainsariak garatzeko berdintasunarekin.
- B. AURREA HARTZEA, BERRIKUNTZA, ERANTZUTEKO ABIADURA ETA ERRESILENTZIA** gero eta **aldakorrangoak diren ingurune eta lan-merkatuan** erantzun arinak eskaintzeko.
- C. LURRALDE-OREKA**, enplegu-aukerak eskualde eta udalerri guztietara irits daitezen
- D. ADOSTASUNA ETA LANKIDETZA**, Euskal Enplegu Sistema osatzen duten eragileen gaitasun guztiak aprobetxatuz
- E. GOBERNANTZA IREKIA ETA MAILA ANITZEKOA, LIDERGO PUBLIKOTIK ETA GIZARTE-ERAGILEAK ERDIGUNEAN JARRIZ.**

## 2º ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN INGURUKO BERRIKUNTZARI ETA ERAGILEEN EKOSISTEMARI BURUZKO LEHEN AZTERKETA

Aurrera egiteko borondatea...

- **Berrikuntza bultzatu eta artikulatzeko** premia **Lanbidetik eta Sailaz haraindi** garatzeko beharraren intuiziotik abiatzen zena.
- 150 erakunde baino gehiagorekin **harremanetan jartzeko ahalegin handia** (udalak, garapen-agentziak, enpresa- eta sindikatu-elkarteak, elkarteak, prestakuntza-zentroak, hirugarren sektoreko hainbat erakunde...); eta intereseko hainbat kasuren azterketa, erronka horri organikoki erantzuteko hipotesi desberdinak irekitzen zituena.
- Ekimena baliagarria izan zen kezka bera sortuz honako hau egiaztatzeko: **gaiak zuen interes orokorra**, baina, era berean, **ez zegoela** oraindik **erantzun egoki bat emateko baldintzarik**
  - Euskal Enplegu Sarearen kontzeptua oraindik formulatu gabe zegoen.
  - Euskal Enplegu Legeak ere ez zuen oraindik heldutasunik, Berrikuntzari lan-esparru egokia, koherentea eta plurala eskaintzeko.



### 3º MRRen OPTIMIZAZIOA

MRR funtsek berrikuntzarekin lotutako hainbat ekimeni heltzeko aukera ekarri dute. Ekimen horiek, bestela, nekez egin zitezkeen, edo indar txikiagoz garatuko ziren. Bi lan-gune zehatz aipatzen dira:

**A. COE estatuko PROGRAMA (Orientazioa, Ekintzailletza eta Berrikuntza):** EAEren kasuan, berrikuntzaren inguruko bi lan-bektoreri eman die euskarria:

- Enplegu-zerbitzu publikoen eta, oro har, horien ekosistemaren modernizazioari eta berrikuntzari buruzko azterlan eta input sorta zabala.
- Enpleguko Berrikuntza Sarearen oinarrizko egitura edo Nodo Nagusia/Enbrioia sortzea, hiru lurralde-egoitzatan oinarrituta: Vitoria-Gasteiz egoitza nagusi gisa, eta Sestao eta Zumarraga lurralde-egoitza gisa.

**B. LANBIDE HOBETZEN** Lanbideren eraldaketarako eta berrikuntzarako proiektu eragile gisa: esku-hartze eredutik bulegoen eredura, informazioa kudeatzeko euskarri izaeratik bitartekaritza eta bestelakoen zerbitzura dagoen ezagutzaren kudeaketa izaerara.

## 4º ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEA

### Proiektua....:

- Enpleguaren “zeharkako” ikuspegitik abiatzen da, eta erakundeek eta gizarteko eragileek Enpleguaren Euskal Sarearen kontzeptuaren inguruan duten jarduna lerrokatzen du, hau elementu egituratzaile gisa hartuz
- Beste elementu berritzaile batzuk sartzen ditu, hala nola, **bermatutako zerbitzu batzuk izateko eskubide subjektiboa;** edo **informazio aurreratuko zerbitzua.**
- **Berrikuntza elementu nagusi bilakatzen du**
  - V. Titulua. Euskal Enplegu Sareko enplegu-politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren ikerketa, berrikuntza, hedapena eta ebaluazioa.

Eta, bereziki, 87. artikuluan:

1. *"Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak... eta Lanbidek... ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikatuko programak bultzatuko dituzte, bai eta horiek praktikan jartzea ere, honako arlo hauetan: orientazioa; prospekzioa; lan-bitartekaritza; pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzailerikiko aholkularitza; ekintzailera eta enplegurako garrantzitsuak diren beste ekintza-arlo batzuk..."*

....

5. *"Enplegu-politika publikoen arloan eskumena duten beste erakunde batzuekin lankidetzaren sareak ezartzea sustatuko da, ikerketaren emaitzen transferentzia errazteko..."*

**Horrela, Euskal Enplegu Sarearen esparruan, Berrikuntza Sare espezifiko bat sortzea sustatuko da.**



## 5º BERRIKUNTZAREN ALDEKO TESTUINGURUA

Eta mugarri handi horiek osatzeko, **lan zabala eta jarraitua** egin da, tonu txikiago eta sakabanatuagotik lagungarri izan dena, hainbat deialdi eta ekimenen bidez, sentsibilizazioa landu eta aldarte bat sortzeko, non berrikuntza premiatzat hartzen den; funtsezko elementu bilakatuz etorkizuneko enplegu-politiketan eta horiek gauzatzeko zerbitzu eta praktiketan.